

1998ko AZAROaren 18ko BILKURA NAGUSIA

Lizartzan, mila bederatziehun eta laurogeita hamazortziko azaroaren hemezortzian, gaueko bederatzia direnean, Alkatea: Jose Antonio Mintegi Arrate; Udalkideak: Ima Zubeldia Luloaga, Juan Manuel Ibarguren Etxeberria, Marian Olano Zabala; Ramon Bengoetxea Altuna, Manuel Barriola Tolosa eta Jose Arzadun Egiluz Udalkideak ez dira azaldu, naiz eta jakinean egon, eta ez dute inolako arrazoirik eman; Idazkaria: Ana Jesus Zabala Garmendia eta beste hainbat herritar, Biltzar Nagusian bildu dira, gai hauek erabili direlarik:

1.- AURREKO AKTAREN ONARPENA:

Alkateak, aurreko saioaren aktari ezer esatekorik badagoen galdetu du, eta inork ezer esatekorik ez duenez, aho batez onartu da.

2.- KAFETEGIA IREKITZEKO ESKAERA

IKUSIRIK.- Joxe Martin Zubeldia Aierbe Jaunak aukeztu duen, Kale Nagusia 19an, Kafetegia irekitzeko baimena eskaera, eta horri buruz eman diren tramiteak.

IKUSIRIK.- Iharduera jarri nahi den eraikuntza, 1961eko Azaroaren 30eko Erregelamenduak dioenarekin, Udaleko Arauetara egokitu, eta Arau Subsidiarioetako hirigintz kalifikazioarekin ados dagoela.

IKUSIRIK.- Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak, aldeko txostena luzatu duela.

Horren arabera, zera proposatu da:

1.- Joxe Martin Zubeldia Aierbe Jaunak eskaturiko, Kale Nagusia 19an, Kafetegia irekitzeko baimenari, aldeko txostena luzatzea.

2.- Ihardueraren ezaugarrien arabera, KAFETEGI kalifikazioa proposatzen da.

Proposamena aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

3.- GARAJE IHARDUERA ESKAERA

IKUSIRIK.- Plaza Soro Kooperatibak, Plaza Soron, adosatutako 20 banakako etxebizitzetan garajeak jartzeko baimen eskaera, eta horri buruz eman diren tramiteak.

IKUSIRIK.- Iharduera jarri nahi den eraikuntza, 1961eko Azaroaren 30eko Erregelamenduak dioenarekin, Udaleko Arauetara egokitu eta Arau Subsidiarioetako hirigintz kalifikazioarekin ados dagoela.

IKUSIRIK.- Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak, aldeko txostena luzatu duela.

Horren arabera, zera proposatu da:

- 1.- Plaza Soro Kooperatibak eskaturik, Plaza Soron, adosatutako 20 banakako etxebizitzetan garajeak jartzeko baimenari, aldeko txostena luzatzea.
- 2.- Ihardueraren ezaugarrien arabera, GARAJE kalifikazioa proposatzen da.

Proposamena aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

4.- LIZARTZAKO UDALERRIA BATZEN DUEN EREMUKO 1/10000 ESKALAKO KARTOGRAFIAREN ARGITALPENA EGITEKO BETEKIZUN TEKNIKOEN PLEGUA

1.- SARRERA

Euskal Autonomi Elkarrean, hura osatzen duten udalerrien eskala txikiko oinarritzko Kartografia izateko duen beharrezana izan da Oinarri Kartografia hau argitaratzeari ekiteko arrazoia, hain zuzen, berriazko kartografia izateko, kultura

informazio eta udal eta eskualde aginpidetza-esparruetan gauzatzen diren proiektu eta azterlanetarako eta ikerlanetarako beharrezkoa den informazio gisa. Hitz-erroaren eta ingurune geografikoaren araberrako eduki toponimikoa jasotzen du eta Lizartzako Udalerriari dagokion eremu osoan jaso dezan ingurune fisikoaren eta giza-ingurunearen kartografia gaurkotuak osatzen du.

2.- XEDEA

Hona zein den Plegu honen xedea: Lizartzako Udalerria jasotzen duen eremuko Mapa Kartografikoaren argitalpena gauzatu eta burutzeko beharrezkoak diren Betekizun Teknikoak definitzea.

Lurraldearen Antolamendurako Zuzendaritzak aipatutako Kartografian sartu beharreko eduki fisiko, geografiko eta toponimikoari buruzko datuak eskuratuko dizkio kontratatutako enpresa aholkulariari.

Ondoriozko Mapa Kartografiko-Toponimikoak bere erregistro zenbakiak eta legezko gordailua izan beharko ditu.

3.- EZAUGARRI TEKNIKOAK

3.1.- Gaurkotzea

Jatorrizko fotolitoetan bideen trazadurari, toponimiari, bideen sare autonomiadun eko izenei eta kolore aldaketei dagozkien aldaketa guztiak egingo dira, Eusko Jaurlaritzako Lurraldearen Antolamendurako Zuzendaritzako kasuan kasuko teknikariek zehaztutako aginduen arabera, beti ere. Era berean, metodo fotogrametrikoez lortutako Kartografia denez, berritzez lortu ezin izan diren xehetasun fisikoak ere sartuko dira.

3.2.- Toponimia, Errepideak, Landaretza eta Hidrografia

Toponimia erabat berraztertuko da, Lurraldearen Antolamendurako Zuzendaritzak duen toponimia digitalaren laguntzaz, horretarako toponimiaren

kopia bat Autocad-eko DWG edo ARC/INFO formatuetan aurkeztuko da, geruzaka banatuta dagoena, kasuan kasuko tamaina eta motarekin.

Falta diren toponimoak sartuko dira, bere kokapen edota egitura linguistiko zehatzarekin bat ez datozenak ere aldatuta. Hori guzti hori geruza, erakunde, hedapen, mota eta tamainei buruzko kodeen adierazpenekin.

Ondoren banatu egingo da maparen oharrari zabalduko zaion sailkapenaren arabera.

Errepideak, bideak eta bideskak berraztertuko dira, oharraren sailkapenaren arabera, agertzen ez direnak edo, hegaldi fotogrametrikoan ikusmen ezagatik, izkutuan egonik berriztu ezin izan direnak gaurkotu egingo direla, hauen datuak topografikoki hartuta.

Oharrean sartutako landaretza-mota desberdinak interpretatuko dira, goimendian eta behe-mendian sailkatuta, mapari dagokion azalera guztian, azalera horiek batzen dituzten kurbak egiteko beharrezkoak diren datuak digitalizatuz edo topografikoki jasota.

Hidrografia Lurraldearen Antolamendurako Zuzendaritzaren Kartografian agertzen ez diren erreka eta ur-emari txikiko ibai guztiak sartuta berrikusiko da, higrgrafia osatu eta gaurkotuko dela honela, berritze fotogrametrikoan azaldu ez diren ubide, presa, iturri eta iturburuak sartuta. Datuak topografikoki zehaztuko dira, maparen eskalak onartzen dituen tolerantzien arabera.

Altimetria sestra-kurbekin adieraziko da, kurben artean 5 metro edo 10 metroko tarte berdinarekin, kurba gidariak eta ez gidarien artean bereizita, kota puntuak jarrita egoki irizten den lekuetan.

Goi-beheen eremuak ilundu egingo dira, erliebe sentsazioa hobeto adierazteko.

Koordenatu lauak UTM (Universal Transversa Mercator) sisteman eta ED 50 sisteman adieraziko dira eta, hala behar izanez gero, koordenatu geografiko europearrak ere sartuko dira; koadrikula dezimetroak finkatuta maparen eskalaren arabera, altrimetria, ostera, Eusko Jaurlaritzaren goratasun-sarearen arabera definituko dela.

3.3.- Fotomekanika

Euskarri-mota guztiak insolatu, positibatu eta itxuratzeko erabilitako fotomekanika-teknikek, irudiaren dimentsioaren egonkortasuna eta argitasuna bermatu beharko dute ahalik eta gehien, jatorrizkoa xafletara doiketa eta xehetasun bermez pasatzeko moduan. Jatorrizko oinarrian jasotako informazioa stabilenera pasatzea, insolazioz edo transparentziaz egingo da. Oso kontutan hartuko da koordinatografoan oinarria zizta-lanaren uztarrian doitzea.

3.4.- Zizta-Lana

Mugaketa zizta-lana erabilia soilik egingo da, hau da, euskarri itxuragabetu ezineko pelikularen gaineko grabatua, egoki diren tresnak erabiliz, puntu soil, bikoitz edo hirukoizdunak eta irudikatu beharreko elementu bakoitzari egokien zaizkion zabalera eta aldeekin.

3.5.- Fotokonposaketa

Toponimiaren zein oharraren, ertzen eta nolanhiko errotulazio guztia fotokonposaketatik soilik sortuko da, planoaren gaiari, eskalari eta neurriei egokien zaizkien karaktereak erabiliaz. Errotuluen jarpena kartografiaren arau orokorren arabera izango da, kokapen, aldeak eta bestelako xehetasunei dagokienetan. Toponimia eta errotulazioaren tamaina eta mota, iruditu beharreko xehetasunari eman nahi zaion garrantziaren arabera hautatuko dira.

3.6.- Muntaketa eta Xafla Pasatzea

Behin betiko positiboen muntaketa itxuragabetu ezineko materialen gainean egingo da, astralon edo antzekoren batean, bakoitzean doiketa-ekis bana jarrita lana erabat ondo egiten dela bermatzeko.

Metal-motako eta aurretik sentsibilizatutako xaflak erabiliko dira lana hobeto itxuratzeko, bizi kartografikoetan duten egonkortasunagatik oso egokia baita. Pasatua eta eskuzko azken ikutua prozesuaren kontrol zehatzagoa izatekotan.

3.7.- Irarpea

Irarpea offset sistemaren bidez egingo da, sistema honekin lortzen den kalitateagatik.

3.8.- Paper Kartografikoa eta Tintasu

Erabili beharreko paper kartografikoak honako ezaugarri hauek izan beharko ditu, bateratasun, azalera, tintatu, ekartze eta dolesteari gogortasunari dagokienetan.

Konposaketaren ezaugarriak:

Ore mekaniko edo erdi mekanikorik gabeko konposaketa haritsua

GRAMAGE	112 g/m ²
Hezetasuna	%7 (+/-%1)
Errautsak	% 5

Ezaugarri fotokimikoak eta optikoak:

Zuritasun-maila	%80 (ELREPHOn neurtuta)
Zurbiltasuna	%82 (TAPPI)
Ur-zurgadura	22 g/m ² (COBBen metodoa, 1 min.)
Leuntasuna	40/90 (GURLEY)

P.H.a 5

Ezaugarri mekanikoak:

Hausturaren luzera	L.5.800 m T.3.200 m
Eztanda-Indizea	21
Jaurtiketa-Indizea	70 (luzerako eta zeharkako neurria)
Tolesdura	L.135 T.90

3.9.- Tintak

Beltza:	CUAR-LORILLUX
Gorria:	BRONCE LITOGRAF
Horia:	CROMO N2 LITOGRAF
Azula:	Berdexka GI.LITOGRAF
Siena:	Medio litograf
Berdea:	Horixka LITOGRAF

Tintetan zein paperetan aldaketak egiterik badago, izan daitezkeen oharpenei begira.

4.- AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

Honako agiri hauek aurkeztuko zaizkio Eusko Jaurlaritzako Lurraldearen Antolamendurako Zuzendaritzari:

ARC/INFOOn edo ARCVIEWn V 2.0 – 3.0, zuzendutako kartografia eta toponomia osoaren edukia jasotzen duten disketeak, kasuan kasuko aldaketak behin erantsiz gero.

Jatorrizko fotolito guztiak.

Ale-kopuruaren %10.

5.- IKUSKARITZA ETA KALITATEAREN KONTROLA

Lanak Zuzendaritza Teknikoaren ikuskaritzapean gauzatuko dira, eta hau Lurraldearen Antolamendurako Zuzendaritzako (Eusko Jaurlaritza) Lurralde Informaziorako Zerbitzuko arduradunaren eta udaleko kasuan kasuko Zerbitzu Teknikoaren eskuan egongo da. Hauek burututako lanen (erabili beharreko materiala barne) ikuskaritza eta kalitatearen kontrol lanak egingo dituzte. Betekizun Teknikoen Plegu honetan agintzen diren kalitateak eta xehetasunak lortzeko beharrezkoak diren baldintzak betetzen ez dituen oro onartu gabe.

Dena dela, Topografiako Ingeniari Teknikoen Elkargo Ofizialak edo Euskal Autonomi Elkartearen horretarako eskuduntza osoak dituzten Unibertsitarien edo 2. Zikloko Goi-Elkargoetako batek eman beharko dio ikus- onetsia azken lanari.

6.- BURUTZEKO EPEAK

Burututako lanen burutzapena eta emakida, plegu honen gai den lana egiteko dirulaguntzari buruzko aginduan finkatutako epeen barruan gauzatuko da.

7.- ESKAINTZAK: EDUKIA

Aholkulariek egin beharreko eskaintzetan honako puntu eta proposamen hauek aipatu beharko dira:

- 1.- Giza-baliabideak: lanean ihardungo duten teknikarien zerrenda.
- 2.- Baliabaide teknikoak: Pleguan zehaztutako lanak burutzeko eskura dituen ekipoak.
- 3.- Lana gauzatzeko proposamena, egutegia zehaztuta, lanak burutzeko eta emakida egiteko epeak azalduta.

- 4.- Proposamen ekonomikoa, B.E.Z. eta operazioari atxiki dakizkiokeen eta honetan eragina izan dezaketen zerga edo gastuak barne.
- 5.- Gehienera aurkeztu beharreko agirien proposamena, neurriak, alekopuruak, hobekuntzak etabarrak ezarrita.

Lizartza Udalerria batzen duen eremuko 1/10000 eskalako kartografiaren argitalpena egiteko betekizun teknikoen plegua aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartu da.

Guzti horren arabera, hainbat etxe gonbidatu nahi dira, lan hori burutzeko beren, eskaintzak aurkez ditzaten, egokien jotzen den proposamena erabaki ahal izateko.

Horretarako, honako hau erabaki da:

- 1.- Hainbat etxeei, Lizartza Udalerria batzen duen eremuko 1/10000 eskalako kartografiaren argitalpena egiteko betekizun teknikoen pleguaren arabera, beren proposamenak aurkezteko gonbitea egitea.
- 2.- Proposamenak emateko epea 1998ko Abenduaren 11ean amaituko da, eguerdiko 13:00ean, udal-bulegoetan.
- 3.- Udalbatzak, aurkeztutako proposamenen artean, egokien irizten denari emango dio onespena.

5.- NARBAITZU MENDIKO EGURRAREN USTIAKETARAKO EZAUGARRI TEKNIKO-FAKULTATIBOEN ORRIA

Lizartzako Udalaren herri onurako 2054.2 zk. "Narbitzu" mendiko egurraren ustiaketa.

1.- Ustiaketaren Ezaugarriak

1.1. Baldintza orri hau "Narbitzu" izeneko 2054.2 zk. Herri onurako mendiko zenbait unadan matarrasaz (soilketaz) egin behar den egur ustiaketari dagokio, ondoren azaltzen den eran.

1.2. Ustiaketaren kokapena:

Mendiko plano ofizialeko 16zk. Unada. Azalera: 3,8 ha.

1.3. Benetan han dagoena:

Intsignis pinuarekin (Pinus rdiata) landatutako **1527** oin, matarrasaz (soilketaz) ustiatzeko.

1.4. Gutxi gorabeherako zenbatekoa:

1527 oinen mozketa egin ondorengo egur bolumena, azalarekin, eta puntarik mehenean, 7 zm-ko diametroa duena **1519 m³**-koa da.

1.5. Tasazioa

* Enkantearen Oinarrizko Prezioa: **12.830.000,-** Pezta

* Prezio Indizea: **16.037.500,-** Pezta

Oharra: BEZari dagokionean, erabilgarria den karga mota %4koa da eta prezio hauetan sartuta dago.

1.6. Produktua ordaintzeko merkataritza oinarria:

Esleipendunaren **arriku edo zoriaren arabera.**

1.7. Egiteko Epea:

- **1999ko Abuztuaren 31an amaituko da.**

1.7. Fiantza

Behin-betiko adjudikazioaren 4%koa izango da. Pliken aurkezpenean 2% jarri beharko da; beste 2%a, behin-betiko adjudikazioa egindakoan.

2.- Baldintza Orokorrak

Ezaugarri Teknikoen Orri Orokorrean (75-08-21eko 200 zk. EBO.ko 24-04-1975 Ebazpena), eta Ezaugarri Teknikoen Orri Berezian (75-08-20ko EBO.ko 06-05-1975 Ebazpena) xedatutakoak beteko dira.

3.- Baldintza Bereziak

3.1. Egurra ateratzeko bideak:

Gaur egun mendian daudenak, dauden bezalaxe. Horretarako beste edozein bide konpondu edo egin behar bada, Baso Zerbitzuari eskatu beharko zaio eta hark baimena emanaz gero, errematatzailleak berak finantzatuko du. Foru Aldundiko Baso Zerbitzuak behin-betirako esleipena egiten den arte bakarrik bermatuko du aterabideen egoera, eta beti exigituko du erabiltzeko moduan egon daitezela eta, ustiaketa bukatu ondoren, bideen lurzorua, mendia entregatu zen garaian zegoen bezalaxe egon dadila.

Zerbitzu honek ez du bere gain hartuko, herri onurako mendiaren barruan ez dauden beste bide batzuk erabiltzerakoan edo horietarako beharrezko baimena ematerakoan sor daitekeen beste edozein erantzunkizun.

3.2. Egurra arrastaka eramaten duten makinak ezingo dira erabili mozketa egiten ari den tokian Basozaintza Zerbitzu honen baimena ez badute behintzat, beren lana egun dauden edo eraikitzeakoak diren bideetan egin beharko dutelarik.

3.3. Lanak esleitu zaizkion egur enpresak Errepideetako Zuzendaritza Nagusiak emandako baimena beharko du egurra bilatu, moztu eta ezarritako pisu

mugak gaindituz garraiatu behar duenerako, Gipuzkoako Errepide eta Bideen 17/1994 Foru Arauak ezarritakoaren arabera.

4.- Bestelako Arauak

- 4.1. Uneoro, Zerbitzu honetako pertsonalak emandako jarraibide eta aginduak bete beharko dira, bai mozketari dagokionez, bai beste edozein oharpideri dagokionez.
- 4.2. Mozteko seinalatutako zuhaitz guztiak moztuko dira eta derrigorrez, ustelduta edo zutik lehortuta geratu direnak.
- 4.3. Lanak burutzerakoan enpresa esleipendunaren eta Basozaintza Zerbitzuaren artean izan ditzaketen iritzi desberdinetan, azken hitza Basozaintza Zerbitzuak izango du.
- 4.4. Bai Administrazioaren aurrean bai partikularren aurrean esleipendunak bere gain hartuko ditu lanaren ondorioz gerta litezkeen kalteak, batipat instalazio elektrikoetara eta ubideen adarrei edo hirugarrenen eta ustiapeneko langileei eginikoak.
- 4.5. Basolanek irautean duten bitartean herrialde historikoan orri honetan azaltzen ez diren eginbeharrak sortuko balira, basosuteak, euriteek kaltetutako bideak egokitu beharra, landaketa berrietatik kontrolik gabeko ganadua ateratzea, eta horrelakoetan, esleipendunak Administrazioaren esku jarri beharko lituzke aipatutako ekintza horietarako beharrezko baliabideak, beti ere duen ahalmenaren arabera eta Administrazioak eskatzen dion unean.

5.- Esleipena egiteko era

Enkante Publikoan.

6.- Baldintza Ekonomikoak

Tasak: **228.273,-** Pezta.

Behin betiko adjudikaziotik 20 eguneko epean, esleiatzaileak, Gipuzkoa Donostia Kutxako 295904-7 kontuan adjudikazio balorearen %15^a sartu beharko du "Mendi Komisio Probintziala"ren izenean eta Mendiaren hobetze kontzeptupean, 54. Artikuluak eta Gipuzkoako 6/1994 uztailak 8ko Mendi Arau Foraleko 1.go Xedapen transitoriaren arabera eta behin-betiko adjudikazioaren 50%, Gipuzkoa Donostia Kutxan, Lizartzako Udalaren izenean dagoen 220630-8 zenbakidun kontuan.

Gelditzen dena, behin-betiko adjudikaziotik, HIRU Hilabetera.

7.- Pliken Aurkezpena

Proposamenak kartazal itxian aurkeztuko dira Udal Idazkaritzan, lanegunetan eta bulego orduetan, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den biharamunetik hasi eta plikak zabaltzeko izendatu den egunaren bezperako eguerdiko hamabiak arte.

8.- Pliken Zabaltzea

Enkantea Udaletxeko Areto Nagusian egingo da, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarki hau argitara ematen denetik kontatutako hogeitun lanegunen ondorengo hurrengo lanegunaren eguerdiko ordubatean.

Ustiapen honen lehenengo enkantean inor aurkeztuko ez balitz, automatikoki bigarren fase bat egingo litzateke 10 egun beranduago. Leku eta ordu berean eta baldintza berdinekin.

9.- Proposamen Eredua

..... jaunak/andereak (e)an egoitza duenak eta(e)n emandako NAN. Duenak, gaitasun juridiko eta ihardutekoaren jabe delarik, bere izenean edo(r)en izenean, 1998ko ren (e)ko Gipuzkoako

Aldizkari Ofizialean ... zenbakian argitaratutako baso probetxamendurako enkantean parte hartuko du, eta beharrezko ondorioetarako adierazten du:

- a) (hizki eta zenbakidetan) pezetatako salneurria eskaintzen duela.
- b) Bere erantzunkizunpean deklaritzen du, Udak Korporazioetako Kontratazio Erregelamenduko 23. Artikuluan aurrikusitako ezgaitasun eta bateraezintasun kasuetan ez dela sartzen.
- c) 1972ko Uztailaren 14ko Gobernazioko Ministrari Aginduko 2. Artikuluak eskatzen duen erantzunkizuneko enpresa karnetaren jabe dela.
- d) Dagokion sortaren enkantean parte hartzeko behin-behineko bermea frogatuz ziurtagiria dakarrela.
- c) Enkanteko Baldintzen Pleguan azaltzen diren puntu guztiak oarntzen dituela, eta halaber bertatik erator daitezkeen betebehar guztiak.

Nar baitzu Mendiko Egurraren Ustiaketarako Ezaugarri Tekniko-Fakultatiboen eta Baldintza Ekonomikoen Orria aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

6.- FRONTOI ONDOKO LURREN KALIFIKAZIO ALDAKETA ETA SEGREGAZIOA

AURREKINAK

LEHENENGO.- Bide publikoen zabalkuntzari ekiteko asmoz, Lorenzo Zubeldia Aierbe eta Genara Beldarrain Zubillaga Jaun/Andreak Lizartzako Udalarari doan utzi zioten beren jabetzakoak diren lursail jakin batzuen okupazio eraginkorra. Lursail horiek Elizaren eta Txominenea eta Soroanea eraikuntzen inguruetan daude kokatuak.

Okupazio horiek –agiri honi eranskin gisa erantsitako 1. Planoan deskribatzen da, grafikoki, horien kokagunea eta kokaleku fisikoa-, 40 m² inguruko hedadura hartu zuten azalerari dagokionez.

Okupazio eraginkor hori egin arrear, eta nahiz eta arestian aipatutako lursailak gerora begira Udalaren alde lagatzeko edo trukatzeko eskaintza egin, gaurdaino ez zaio inoiz ekin titulartausn berria erregistro bidez arautzeari, ez eta horiek jabari publikorako izan beharko luketen afektazioari.

BIGARREN.- Aurretik aipatutako trukatzeko edo lagapenaren ordain modura, eta Lorenzo Zubeldia Aierbe eta Genara Beldarrain Zubillaga Jaun/andreak orduko Udalbatzarekin izandako elkarrizketei esker, lehen aipatutako interesdunei adierazi zitzaizen etorkizun hurbilean gainerako lursail txiki haren entregatzeari ekingo zitzaiola; beren jabetzako ere den “Soroanea” izeneko erakuntzaren hegoaldean muga eginez, titulartasun publikoari eusteko premiari ez zuen lursaila, alegia.

HIRUGARREN.- Gaurdaino denbora pasa den arren, ez zaio ekin lehen aipatutako egoerari erregistro bidez arautzeari; horrela, bada, aurrekoaren arabera eta izan diren elkarrizketen ondorio gisa, alderdi izenpetzaileek Hirigintza Hitzarmen honen adierazpen adostu dute, honako akordioei lotzen zaizkiona:

AKORDIOAK

LEHENENGO.- Lizartzako Udalak konpromisoa hartu du beharrezkoak diren legezko eta hirigintzako tramite edo gestio guztiak egiteko, interesdunei bere egunean egindako proposamenaren erregistro bidezko arautzeari begira. Proposamen hori, hain justu, 84,607 m²-ko azalera duen lursailaren trukatzeari

oinarritzen da, zeina “Soroanea” izeneko eraikuntzaren Hegoaldeko muga kokatzen den.

Agiri honekin batera dator, 2. Eranskin gisa, adierazitako azaleraren plano deskribatzailea.

BIGARREN.- Horretarako, Udalak ofizioz bultzatuko du jada hasitako espedientea, aipatu lursailen jabari publikorako beharrezko desafektazioari, aipatu lagapena baino lehen, ekin ahal izateko; lursail horiek grafikoki adierazten ziren agiri honi erantsitako 2. Eranskinean.

HIRUGARREN.- Beren aldetik, Lorenzo Zubeldia Aierbe eta Genara Beldarrain Zubillaga Jaun/Andreak konpromisoa hartu dute –“Soroanea” izeneko eraikuntzaren Hegoaldeko muga kokatutako lursailak haien izenean trukatzeko eta eskualdatzeko egoera juridikoan daudenean- bertaratu eta agiri honen aurrekinetan adierazitako terminoetatik eratorritako trukatzea eskritura publikoan gauzatzeko.

LAUGARREN.- Lizartzako Udalak konpromisoa hartu du behin eta berriro aipatutako lursailen inskripziotik eta horiek eskritura publikoan gauzatzetik eror daitezkeen gastuak oro ordaintzera.

Lizartzako Udala eta Lorenzo Zubeldia Aierbe eta Genara Beldarrain Zubillaga Jaun/Andreekin, lurren permuta gauzatzeko hitzarmena sinatu ahal izateko, Udaleko Alkate-Lehendakaria den, Jose Antonio Mintegi Arrate Jaunari, ahalmenak ematea, aho batez onartu da.

Aipatutako guzti horren arabera, eta lur hoi permuta gauzatu ahal izateko, zera proposatu da:

LEHENENGO.- Udalaren jabetzakoak diren lurrak, jabari publikotik desafektatu eta patrimonial bezala kalifikatu ahal izateko espedientea hastea.

BIGARREN.- Espedientea, HILABETEko epean jendaurrean jartzea, GAO n eta Udaleko iragarki taulan argitaratuaz, egoki irudituz gero, alegazioak jarri ahal izateko.

HIRUGARREN.- Epe horretan, alegaziorik ez badago, desfaketazio erabakia behin-betirako onartua geldituko da, Alkateak bere harrera formala egingo duelarik.

Proposamena aztertu eta eztabaidu ondoren, aho batez onartua izan da.

7.- EGUNKARI BERRIKO AKZIO EROSKETA

Lizartzan Baietz Plataformako kideek, Egunkari berriko akzio baten erosketa proposatu diote Udalari.

Proposamena aztertu eta sakonki eztabaidu ondoren, aho batez onartua izan da.

8.- ASKATASUNA DEBEKATURIK DUEN PERTSONA OROK, DAGOKION ZIGORRA BERE INGURU FAMILIAR ETA SOZIALEKO ESPETXEAN BETETZEKO ESKUBIDEA DU. MOZIOA

Hau eskubide bat eta administrazio publikoen espetxe legediaren betekizun bat da.

Dispertsioa eta gaur egungo politika penitentziarioaren amaiera behin eta berriro aldarrikatua izan da azken urte hauetan euskal gizartearen gehiengoarengandik eta bertako instituzioetatik. Gogoratzea besterik ez dugu, Gasteizko Legebiltzarrak eta bereGiza Eskubideen Batzordeak nola IU, CDN,

HB eta EA Nafarroan eta Euskal Herriko hainbat Udaletxeek burututako aldarrikapenak.

Aldi berean ezin dugu ahaztu egoera honen amaiera eskatuaz talde sozial ugariak bultzatutako mobilizazioak.

Hau honela izanik, aitortu behar dugu eskakizun hau gauzatuazetik oraindik oso urrun gaudela eta gobernu espagnolak zein frantsesak ez dutela inongo harmen jarrerarik erakusten Gasteizko parlamentu, udaletxe eta hiritarren eskaizunen aurrean.

Giza eskubideen ikuspuntutik, dispertsio politikaren amaiera eskatzea eta exijitzea luzaezina bada, kontestu berrian, honi iraupena eta jarraikortasuna ematea soilik estatu administrazioen probokazio neurtu bezela ulertuko litzateke, guzti honek bakerako prozesua oztopatzen duelarik.

Normalizazio politikoa gauzatzeko eskariz betetako hauteskunde kanpaina baten ostean, Euskal Autonomi Elkarteko Legebiltzar berria aukeratu da.

Beraz, kontestu berri honetatik ulertzen dugu beharrezko eta nahitaezko betebeharra dela Euskal Herriko Udalek egoera sozial on bat eragin eta gauzatu dezatela. Aldi berean gure herrietatik sofrimendu adierazpen guztiak kanporatzeko konpromezua har dezatela. Honengaitik, eta euskal presoek eta hauen senideen eskubideei dagokienean, dei egiten diogu korporazio honi akordio hauek hartzera:

1.- Gaur egungo legediaren gauzatzearekin nola oinarritzko giza printzipioengatik, askatasuna debekaturik duten euskaldun orok beren zigorra inguru sozial eta familiarretan bete dezatela, hau da, Euskal Herriko espetxeetan. Bestetik, zigorraren $\frac{3}{4}$ -nak betetak dituzten euskal presoak, bete ere espetxeko erizpide errepresiborik ezarri ez bazaizkie, askatasun baldintzatuan egoteko eskubidea dute. Era berean, gaixotasun sendaezinak dituzten presoek berehalako askatasuna, legediaren 92. Artikulua aplikatuz.

2.- Gobernu espainol zein frantsesak ez dituela entzun istituzio euskaldunek eta euskal hiritar gehienek luzatutako eskakizunak.

3.- ETAk baldintzarik eta mugarik gabeko su etena aldarrikatzeak sortu duen egoera berriak, agerian uzten du Gobernu frantses eta espainiarrak presoekiko mantendu duten eta mantentzen duten sailkapen eta kalifikazio politikoa; ETA Eraundeak eman ditzazken urratsen arabera sakabanaketa eta urruntzea "birbideratuak" izango direla diotenean.

Frantsez eta espainol Gobernuaren kartzela politika ez da beraz legaltasunean oinarritu, erizpide politikoetan baizik.

4.- Benetako eta betirako bake prozesu bat bultzatu eta gauzatzeko urrats asko eman beharko ditugula eta euskal gizarteak bizi duen sofrimendua desagertu arazteko asmoak bultzatzen gaituela.

5.- Gasteizko Legebiltzarrari azken urteetan hartutako akordioak eta Iruñeako Parlamentuari mozio honetan aipatzen diren puntuak gauza daitezen bere ahaleginak areagotu ditzaten eskatzen diegu.

6.- Herri bakoitzean, 1998ko abenduaren 31erako deituko dugun mobilizazio ixiletan gure partaidetza ziurtatzen dugu.

7.- Azkenik, mozio honetan jaso ditugun puntuen esanahia biltzen duen dokumentu bat eskainiko diola bai Espainiar Gobernuko Barne Ministraritzari bai frantsez Gobernuko Justizia Ministraritzari, Euskal Herriko Alkateen Komisio batek.

9.- ALKATETZAREN DEKRETUAK

JUANA IBARLUZEA ITURRALDERi, Kale Nagusia, 23an dagoen etxeke teilatuari erretila eman eta fatxada pintatzeko baimena.

Eta hitzegiteko beste gairik ez dagoenez, Alkateak, Batzarra amaitutzat eman du, gaueko hamarrak direnean.